

Leartikerrek antolatutako “Polymers and Medical Applications” jardunaldiaren 5. edizioa

Maiatzak 5an, Leartikerrek “Polymers and Medical Applications” jardunaldiren bostgarren edizioa ospatu zuen. Osasunaren sektorean polimeroek eta teknologia berriek eskaintzen dituzten berrikuntza eta aukerak aztertzea helburua duen jardunaldi hau urteroko hitzordu garrantzitsu bilakatu da sekto hauetan interesatuta daudenentzat. Aurtengo edizioan, silikona likidoa izango zen jardunaldiaren ardatz nagusia, osasunaren sektorean etorkizun oparoa daukan materiala, hain zuzen ere.

Sei izan ziren Lea-Artibai Berrikuntza Gunera hurbildu ziren adituak. Esaterako, Baionako Merkataritza Ganberako Aitor Arbelaizek, *Silikona likidoa eta osasuna gure lurraldean* hitzaldia eskaini zuen. Bere hitzaldian, Arbelaiz Leartikerrek zuzentzen duen eta Baionako Merkataritza Ganbera ere kide den HEALTH LSR proiektu europarraren baitan egiten ari diren merkatu ikerketaren inguruan aritu zen.





Silikona likidoaren erabilera oinarri hartuta, eta hortaz gaiarekin oso lotuta, HEALTH LSR proiektuak Akitania-Euskadi-Nafarroa eremuko polimeroen sektoreko enpresen dibertsifikazioa bilatzen du, osasun arlora bideratuz. Horretarako, silikona likidoz egindako 5 prototipo sortu eta ostean enpresetara transferituko dira industrializazio eta merkaturatze prozesuetarako, horrela, proiektuan parte hartzen duten agente ezberdinen lokarri ekonomikoak indartuz.

Jardunaldian entzuteko aukera egon zen beste hitzaldi garrantzitsuetako bat Carlos III Unibertsitateko Jose Luis Jorcanorena izan zen: *Azal funtzionalaren 3D bioinprimaketa*. Gai oso interesgarria Jorcanok mahai gainera ekarri zuena, 3D inprimaketaren bitartez azal funtzionala lortzeak sendagai eta kremen testak egiteko hain polemikoa den animalien erabilera desagertzea suposatuko lukelako.